



**2024KO URRIAREN 14KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko urriaren 14an, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Idazkariak, saioa hasi aurretik, azaldu du faktura zerrendan agertzen den fakturetako bat, Aliña Jatetxea S.L.-k igorritakoa hain zuzenean, zerrendatik kanpo gelditzen dela hornitzailearekin puntu batzuk argitu artean.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2024ko irailaren 30ean egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2024ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 73 zenbakidun zerrenda EHUN ETA SEI MILA EHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIKA euro ETA LAUROGEITA ZAZPI zentimokoa (106.171,87 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 24-11-13 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea irailaren 9an, egunean ordubetez astelehenetik larunbatera, laguntza pertsonalean laguntzeko eta baja ematea urriaren 2an heriotzagatik. Onuradunen ekarpena % 100ekoa izango da.

- 24-11-14 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea urriaren 8tik aurrera, astean bi egunetan eta eguneko 2 orduz, etxeko garbiketan laguntzeko. Onuradunen ekarpena % 2koa izango da.
- 24-11-15 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea urriaren 8tik aurrera, astelehenetik larunbatera egunean 3 orduz, laguntza pertsonalerako eta etxeko garbiketan laguntzeko. Onuradunen ekarpena % 100ekoa izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 23-01-009 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako laguntzari baja ematea ekainetik, bizileku aldaketagatik.
- 23-01-019 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako laguntzari eta alokairu gastuetarako laguntzari baja ematea urtariletik, baldintzak ez betetzeagatik.

Joxemiel Barandiaran Udal kiroldagiko bazkidetza eta jarduerengatik ordaindu beharreko tasak ordaintzeko laguntza ematea.-

- 24-23-13 zenbakidun esped.:
 - o Udako aisialdi zerbitzua ordaintzeko 88,30 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.
 - o Kiroldagiko 10 sarrerako bonoa ordaintzeko 39,33 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.

Lazkaoko udalerrian mendekotasuna eta desgaitasuna duten pertsonen estimulazio edo errehabilitazio programak egiteko laguntzak.-

Lazkaoko udalerrian mendekotasuna eta desgaitasuna duten pertsonen estimulazio edo errehabilitazio programak egiteko laguntzak emateko 2024 urterako deialdia onartzea. Honakoa dio deialdiak:

"1.artikulua. Xedea.

- Laguntza hauen deialdiaren helburua Lazkaoko herrian mendekotasuna edo desgaitasuna duten 6 eta 25 urte bitarteko pertsonen estimulazio edo errehabilitazio tratamendua behar duten pertsonen urteko gastuak arintzea da.

2.artikulua. Aurrekontu diru hornidura

Deialdi honetan emango diren diru laguntzen zenbateko osoa 11.000,00 eurokoa izango da, Lazkaoko udalaren 2024ko aurrekontu orokorreari dagokiena.

3.artikulua. Ezargarri den araudia.

Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa; diru Laguntzen Araudi Oroko-





rra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa; eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko irailaren 20an onartutako mendekotasuna edo desgaitasuna duten Lazkaoko udalerriko pertsonak estimulazio /errehabilitazio programak egiteko, laguntzak emateko oinarriak.

4.artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak eta eskaerak aurkezteko epea.

4.1 Dokumentazioa:

- Eskaerari dagokion inprimaki ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.
- Eskatzailea eta familia unitatea osatzen dutenen Nortasun agiriaren fotokopia.
- Familia liburuaren fotokopia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren desgaitasun ziurtagiria (udalari ziurtagiria lortzeko baimena ematen bazaio, ez da aurkeztu beharko).
- Eskaeraren aurreko urtean egindako tratamenduaren urteko gastuaren egiaztagiria.
- Kontu zenbakiaren 20 digituak.

Eskatzaileak bere familia unitatearen egoera ekonomikoa baloratzea nahi badu, honako hauek ere aurkeztu beharko ditu:

- Lazkaoko udaleko Gizarte Zerbitzuei baimena ematen dion agiria, behar diren datuak sektore publikoko edozein erakunderengandik zuzenean jaso ditzan, laguntza hauek lortzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.
- Jasotako diru sarrera garbien agiria (10T, nominak, pentsioa ...)
- LANBIDEk, Estatuko Enplegu Zerbitzuak eta / edo Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak egindako urteko prestazioei buruzkoa edota prestaziorik jasotzen ez denarena, 16 urtetik gorako pertsonena.

4.2. Eskaerak aurkezteko epea:

- Eskaerak 2024ko azaroaren 13tik 26era arte aurkeztu ahal izango dira."

IV.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeburuak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

San Benito ikastetxeari.-

2024ko San Migel festetan, irailaren 29an, egin ziren ekintzen antolaketan parte hartzeagatik 900 € ematea.

Kantaka Abesbatza taldeari.-

Kantaka Abesbatzaren eta Udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, 5.000 €-ko dirulaguntza ematea aurreikusi zen.

Orain, ordaintzeko falta den %40, hau da 2.000 €, ordaintzea onartu da.

Dirulaguntza 2024ko aurrekontuaren 481.05.334.00 partidatik ordainduko da.

Zawopi Aisialdi taldeari.-

Zawopi Aisialdi taldearen eta Udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honi Gabonetako ekintzak burutzeko 5.000 €-ko dirulaguntza ematea aurreikusi zen.

Orain, 2025 urteko urtarrilean errege kabalgata eta astotxo eguneko antzezlanaren antolatzeak burutzeko 3.000 €-ko lehen zati bat ematea onartu da.

Dirulaguntza 2024ko aurrekontuaren 481.09.334.00 partidatik ordainduko da.

V.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

Gidabaimena euskara hutsean ateratzeagatik dirulaguntza.-

2024. urtean autoa edo motorra gidatzeko baimena euskara hutsean ateratzeagatik dirulaguntzak ematea. Ikasle bakarra izan da, bere espedientearen datuen arabera, eta 100 € emango zaizkio.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2024ko aurrekontuaren 1 481.02.335.00 partidatik.

Euskara ikasten ari direnei.-

2023/2024 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Ikasle bakarra izan da eta emango zaion kopurua 298 €-koa da.

Ordainketa partida honetatik egingo da: aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.





VI.- LANDA EREMUA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa Eremuko batzordetik baserritar ekoizleei diru-laguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako hau erabaki du:

- 2024ko Bashherri eguneko dietak ordaintzea.

Irailaren 22an, San Migeletako jaien barruan, XII. Bashherri eguna ospatu zen. Bertan, 11 ekoizle bildu ziren eta bakoitzak ekarri zituen hitzartutako animaliak eta jateko produktuak. Honen arabera, honako dieta hauek ordaintzea dagokie:

Baserria	Zenbatekoa
Atxubieta	600 €
Imaz Berri	840 €
Intxaurrazpi	810 €
Garadi	1.260 €
Intzartzu	800 €
Otermin Txiki	800 €
Borda Berri	592 €
Iztueta	595 €
Larraitz Etxe	730 €
Altune	1.080 €
Imaz Zahar	150 €
GUZTIRA	8.257 €

VII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Amundarain zinegotziak (EH Bildu) galdetu du ea EAJ-k bat egingo duen Palestinaren aldeko deialdiarekin. Urriaren 21ean izango dela dio.

Naldaiz zinegotziak (EAJ-PNV) erantzun dio bere partiduari galdetu diola baina oraindik ez duela erantzunik jaso. Erantzungo diela.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio herritar batek harridura adierazi diola, gabone-

tako argiak jartzen dituen enpresako langileak larunbat gauean ari zirelako hauek muntatzen.

Alkateak dio hori enpresak berak erabakitzen duela noiz jarri, Udalak ez duela hor baldintzarik ezartzen.

Azkenik Ormazabalek dio, Iruñeako erailketaren ondoren, Alkateak soilik sinatutako adierazpena publikatu zela. Aurreko Gobernu Batzordean gaiari buruz hitz egin zenean ulertu zutela legala dela, baina komenigarria izango litzatekeela adostasun baten bitartez denek erabakita argitaratzea.

Alkateak erantzun du berak ez duela horrela ulertzen, adostasunik egongo ez balitz baletz, baina ados egonez gero ea zein arazo dagoen.

Ormazabalek erantzun du arazoa dela beraien sinadura ez dela agertzen.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bost eta erdiak direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.

